



Ene semiak etzaiztela ostatuetan abusa

«Ene semiak etzaiztela ostatuetan abusa» diote aitak seme-
eri bi pertsutan. Semek erraiten diote beren ikusteko
manera, bertze bi bertsutan.

- 1 Ene semiak etzaiztela ostatuetan abusa;
Goiz erretiratzen den gizona maiz izanen duk urusa.
Gizonaren zoragarri duk mahats arno filusa...
Zonbeit aldiz prestatu zioiat mularik gabe karrosa!!
- 2 Menaiatuz on egiten dik gorputzian edariak.
Soberetan pasatuz geroz akabo gure fediak.
Mediku haundi batek bezala, nik erranen dut egia:
Gazte delarik inultitzen dik gizona deboxkeriak.
- 1 Nahi bezenbat menaiatuz deboxkeria hastigu.
Ostatuan guri orenak laster juaiten zaizkigu.
Gure Jinkuak ez daiku emaiten merezi dinbat gaztigu!
Gizon deboxak abusatzeko tiraka guti aski du.
- 2 Arnua edan pipa hartu gero burua xoratu.
Familian behar sosak ostatuan xahutu!
ure denboran hola eginak orai sakelan bazintu,
Jende artean bazinuke duzun adin bat kreditu.

BERGARA, Ganizon «Txistu»

Ganix Altzuet-en bertsu bat

Haren gazte denboran nesken segi joaiten zen eta be-
har ziren segitu etxeraino eta hori egiten ez zuena, ez
zabilen bide xuxenean. Hoberena hala zen. Bide luzean
ere oinez joaiten zen orduan, eta nola uda zen gure ber-
tsolaria egarritu zen. Etxekoek xingal aire bait zuten,
bertsu hau gogoratu zitzaion:

- 1 Partitu aintzinean bertsunon bat bakarrik
Zer desiro dudan nik lili hauen ganik
Bi-ra muxu inozent besarka harturik
Ez bada bihotzean pentsamendu gaixtorik
Ez da bekatuik, ez izan beldurrik.

Ganix Altzuet, berriki zendua den Anttonen aita zen.
Duela bi urte, Ttipi Ttapak elgarrizketatu zuen bere anaia
Pierre-kin xisteraren sotzeaz. Gizon maitagarria, hemendik
gure doluminak Donamartiko famili guziari.

BERGARA, Ganizon «Txistu»

Egun oroz

- 1 Egun oroz goizetan arratsetan
Beti nagozu pena doloretan
Ezin dezaket jan ez eta ere edan
Ez dakit zer dudan, gaitz haundi bat da ni baitan
Atakatzen nau bet-betan
Ni ez naiteke bizi gisa honetan.
- 2 Antxu gazte bilo hori ederra
Sar zaite, sar korralean barnera
Artaldian bada oi zure beharra
Turna zaite turna zure sortu lekura
Desiratzen dut nik hura
Zure ondoan ibili naiz ni ardura
- 3 Artzain ona badautzut ene jauna
Otoi zato, otoi, enegana
Errebelatu denak derautzua pena
Ez izan dudarik, oi antxu bilo urdina
Sorturen dela ordaina
Etzaiztela horrela xangrina.

Frantxua FAGOAGA «Apezteia»en ahotik.

Hunen bizimodua Senpere herrian

- 1 Hunen bizimodua Senpere herrian
Beti zurrut egiten sagardotegian
Broma eta kantua xeibrekerian
Handik ateratu arte ahal duen guzia.
- 2 Hunen ofizioa zapata egilea
Lan fina badauka abilidadea
Bainan lanerako da gogorik gabea
Pena hartzekoa da hunen infinidatea.
- 3 Lana egin baino lehen kobratu lehenbizik
Diru horiek hartu eta tabernara ihesi
Horiek gastatu arte, zoinek etxerazi
Bizkarra hautsitzea ez al du merezi.
- 4 Gosaltzeko behar ditu sei edo zazpi baso
Zoinek orduan honi lana egin asko
Edan korriente bainan pagatzea ahaztu
Hola tabernaria ezin aberastu.

Frantxua FAGOAGA «Apezteia»en ahotik.